



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

## **BIZKAIKO CAMPUSEKO LAN SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEKO OHARTARAZPENA, 2013KO UZTAILAREN 18KOA**

Zuzendari jaun/andere agurgarria:

Honen bitartez Bizkaiko Campuseko Lan Segurtasun eta Osasun Batzordeak 2013ko uztailaren 18an onartu duen ohartarazpena helarazi nahi dizugu. Bere helburua minbizia eragiten duten eragileen erabilpenari buruz lan arriskuen prebentziorako legediak ezartzen duena gogoratzea da (665/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, lan jardunean minbizia eragiten duten eragileetara esposizioarekin lotuta dauden arriskuengatik langileria babesteari buruzkoa).

Izan izanean ere, aipatu arauaren 4 artikulua zera ezartzen du: teknikoki posible den ahala lan tokietan minbizia eragiten dituzten eragileen erabilpena ekidin behar dela. Hori hala izanik honen bitartez eskatzen dizugu zure Saileko irakaskuntza praktiketako arduradunari helaraz diezaiozula praktikak berrius dezatela, minbizia eragiten dituzten eragileak ekidinez, bai horiek ordezkatzuz minbizirik eragiten ez dituzten beste produktu batzuegatik, bai praktikak aldatuz irakaskuntza helburu berdinak lortzeko baliagarriak izan daitezkeen beste batzuegatik ordezkatzuz.

Zure Sailean burutzen ari diren ikerketa proiektuetan ere aipatu araubidea kontutan hartu behar da, minbizia eragiten dituzten eragileen erabilpena ekidinez.

Azken kasu horretan, ordezkapena teknikoki ezinezkoa balitz, EHUko Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi beharko diozu, baita minbizia eragiten duten produktuen erabilpena arrazoitu ere, aipatu araubideak ezartzen duen legez.

Zure laguntza eskertuz

Begirunez

Idazkaria

Iñigo Urrutia

Presidentea

Isabel de Marco